

jatorrizko testua 50. orrialdean

Negrik eta Hardt-ek *Empire*-n landu zuten jendetza nozioaren ildotik, eta jendetzaren beregaintasun eta mugikortasun kontzeptuak baliatuz, osfaveladosek azpimarratzen du jendetzaren lan bizia, mundu berriak sortu eta inteligentzia kolektiboa eraiki nahia dituelarik ezaugarri, gizarte-lankidetzan oinarritzen dela. Parametro horietatik abiatuta, konektatutako etxe-sare bat sortzea proposatu du, eta GNU-teknopoli deitu dio.

O S F A V E L A D O S

## Konektatutako jendetzarentzako etxea

Etxebizitzari buruzko testu bat<sup>\*</sup> idazteko proposamenak ideia bat ekarri zigun berehala gogora, jendetza konektatuentzat irudika zitezkeen etxeei buruz, La Rábidan esperimentatu berria genuen Sarera konektatutako ciborg eta makinaren lounge-laboregiaren bidetik<sup>1</sup>. XX. mendeko industrializazioak eta demokraziek sortutako langile-etxebizitzaren eta hiriaren aurrean, zein izan ote liteke subjektu sozial matxinatuaren, jendetzaren eta, zehatzago esanda, beronen zati konektatuaren etxea, eta hiria bide batez? Horixe izan zen geure buruari egindako galdera.

### Habitatze antagonistaren laborategia pentsatzen

Arkitektura eskola orotan etengabe jarduten dute habitatze berriei buruz hizketan. Esate baterako Edward Sojak, Los Angelesetik, eraldaketa behienen zerrenda bat proposatzen du, eraldaketok gure irudi urbanoak berrituratzen, horien mugak eta esangurak lausotzen eta, aldi berean, ingurune urbanoan pentsatzeko eta jarduteko forma berriak sortzen ari baitira; eta proposatzen dituen eraldaketen artean ditugu, besteak beste, berregituraketa ekonomiko postfordista, globalizazio biziagotua, komunikazioen eta informazioaren iraultza, kultura eta identitateen lurraldegabetze eta lurraldetzea, eta forma urbanoen eta gizarte-egituren berrosatzea<sup>2</sup>. Literatura ugari dago horren inguruan nahiz, gehien-gehienean, abstraktuegia ere baden, eta kemen gutxikoa inondik ere nire iritziz. Izan ere, Sojaren terminologia baliatuz, garaikidetzat eta postmetropolitartzat jo ditzakegu, berdin-berdin, Ciudad Juárezeko “*maquiletan*” lan egiten duten emakumeak eta Manhattango finantza-exekutiboak, Bangaloreko software-programatzaileak eta Silicon Valleyko “janitorea” edo garbitzaileak, Lanzarotera iristen diren pateretako tripulatzaileak eta Cancungo MMEn goi-bilerara joandako media ekintzaileak, Chiapasko Oihaneko zapatista konektatuak eta Davos-eko BMko exekutiboak...

### Commonfarearen zeruertzeraz begirako etxe bat

Irudiak ikerturik, biztanle-langile immaterialen inbentarioak garaturik, espazio-praktika antagonikoak azterturik...<sup>3</sup>, oraingo honetarako, berriz, testu batera jotzea otu zitzaigun, hain zuzen jendetza, behin betiko, egiazko boterea duen subjektu politikotzat era daitekeen moduari buruzko ikerkuntzan gure ustez funtsezkoa den testura. *Empire*-ren azkeneko atala da, jakina, “Jendetza inperioaren aurka” izenburua duena, eta Emmanuel Rodríguezek berorri buruz egin iruzkinaz osatu dugu, Rodríguezek berak eskaini baitigu *commonfare* terminoa, duela gutxi agertu den *El gobierno imposible. Trabajo y fronteras en las metrópolis de la abundancia* liburuan<sup>4</sup>. Negri eta Hardt-ek, eta Emmanuel Rodríguezek ere bat egiten du haiekin honetan, jendetzaren funtsezko hiru alderdi identifikatzen dituzte, botere-harremanak alderantzeko eta mundu garaikidea eraldatzeko gudu-zelaiak eta lurralde potentzialak erakusten dituztenak aldi berean. Gure ustez, hiru esparru horiexek izango dira habitatze antagonista berrien asmakuntzaren berri emango dutenak, ezinbestean. *Traficantes de Sueños* argitaletxe-proiektuaren partaide dugun Emmanuel Rodríguez-en elaborez, hiru esparruak honakoak dira: mugikortasuna, produkzio biopolitikoak/lan bizia, eta inteligentzia kolektiboa; eta horien aurrean *common-*

<sup>\*</sup>Pablo de Sotoren lankidetzaz idatzitako testua, <hackitectura.net>.

*fare* proiektuak hiru gizarte-eskubide berri errebindikatuko lituzke, honakoak: hiritartasun globala, oinarritzko errenta eta jakintza askatasuna. Nolabait, hiru esparru horiek ez dira maila independenteak, baizik eta errealitate beraren, desira beraren alderdiak.

#### Mugikortasuna: espazioa

Negrik eta Hardtek, espazio-iradokizunen oihartzunez blai baleude bezala, honakoa idatzi dute: “Jendetzaren mugimenduek espazio berriak izendatzen dituzte, eta beren bidaiak egoitza berriak finkatzen. Mugimendu beregaina da jendetzaren berezko tokia definitzen duena [...]. Jendetzak geografia berri bat finkatzen du, gorputzen produkzio-fluxuek ibai eta portu berriak definitzen dituzten aldi berean. Zirkulazioaren bidez, jendetzak bere egiten du, atzera, espazioa, eta bere burua subjektu aktibotzat antolatzen du [...]. Subjektibotasuna eratzeke prozesu honen aritzeko modua hurbiletik behatuz gero, ikusi ahal izango dugu espazio berriak ezohiko topologiaren bidez deskribatzen direla, lurpeko errizoma geldigaitzez —patuaren bidez berriak zehazten dituzten geografi mitologiez—. Mugimendu hauek, sarritan, sufrimendu itzelen eragile izaten dira, baina halako askatze desira bat ere badaramate barnean, bakar-bakarrik espazio berriez birjabetzean asetzen den desira bat hain zuzen; eta espazio horien inguruan eraikitzen dira askatasun berriak. Mugimendu horiek iristen diren tokian, dena delarik, eta bere ibilbide osoan zehar, bizitza eta elkarlan modu berriak eragiten dituzte —toki orotan sortzen dute kapitalismo postmoderno bizkarroiak proletarioen odoetik nola zurgatu asmatuko ez lukeen aberastasuna—, zeren eta gaur egun, gero eta gehiago gainera, produkzio mugimenduan eta elkarlanean gertatzen baita, exodoan eta komunitatean<sup>5</sup>. Hauxe da jendetzak bere beregaintasuna berresteko boterea eskuratzeko duen modua, bidaiatzea eta bere burua adieraztea alegia, lurraldeaz zabalki, alderik alde, zeharka birjabetzeko aparatu baten bidez<sup>6</sup>.

Halaz, neurri batean, berreskuratu egiten da Deleuze eta Guattari-ren nomadaren teorizazioa, 90eko urteetako bertsio azalake samarrean baino gehiago bere dimentsio iraultzaile, konektatu, autoritarismoaren aurkako eta mundu sortzailean. Beraz, jendetza konektatuaren etxeak mugimenduari lotutako etxea izan beharko du, munduko bazter orotatik datorren eta orotara doan era guztietako jendez betea.

Negri eta Hardten aipuak iradokitzen duen beste kontu bat honakoa da: etxea hornituta egotea Stewart Brand-ek, arkitekto bihurtutako Merry Prankster ohiak, “espazio gordin” deitzen dituen horiez. Brandek “espazio gordin” izena erabiltzen duenean, akabera arineko eta, beraz, zaluak eta erabiltzaileek *customizatze*ko edo etengabe pertsonalizatzeko modukoak diren espazioak azaldu nahi ditu.

Sarai proiektuak, berau da proiektu politiko-mediatico garaikideetan nabarmenenetako bat, bere izena kultura arabiarreko nomadentzako etxetik hartzen du, hain zuzen ere *karawan saray* —karabanen jauregi— haietatik alegia (<http://www.sarai.net>). 90eko urteetan zehar, Mediterraneo osoan zehar eta Latinoamerikan aldaera eta izen pila batez agertzen den habitatzeta mota hori aztertzen denbora luzea eman nuen. Quevedoren *El Buscón* obran, esate baterako, pikarokak denboraldi bat igarotzen du Toledon edo Salamancan ostatu hartutako ikasle baten lagun gisa; eta ostatuak —*funduq*, arabiera klasikoan— karabanen jauregi horien hiritbertsioa dira. Hara heltzen zen ikaslea, lastaira eta altzari urriak, zeharo mugikorrek egiaz, liburuak eta sukaldeko ontziak zeramatzala, bertako gela batzuetan hainbat urte emateko, beste maizter batzuekin partekatutako patio baten inguruan.

Erdi Aroko eta Errenazimenduko monasterioek edo komentuek, Erasmok edota Giordano Brunok beren bidaietan erabiltzen zituztenek, Milites Dei-en egoitzek, antzeko egitura zeukaten, egoitza-espazioak laneko zein ikasketarako espazioekin lotzen baitzituzten; orobat Errenazimenduko eta Barroko garaiko merkatarien alondegiek, lonjek edo *fondacchioek*. Edota lehen proletario hiritarrentzako etxebizitza kolektiboek, Andaluziako patio-etxeek, Buenos Aireseko komentutxoek, edota hainbat *courtyard*-ek joan zen mendearen hasierako Kalifornian, zeinetan urruneko lurralde berberetatik heldutako etorkinak elkartzen baitziren, elkartasun eta laguntza bila<sup>8</sup>.

Eredu tradizional horiek iradokitzen dutenaren arabera, etxe nomadek lurralde-sareak eratu dituzte. Herri batean etxe nomada bakarra izateak ez du lekualdatzeko balio. Ekintzaileen network-en bidezko mugimenduak gaur egun erakusten duen moduan, jendetza konektatuaren etxeek askotarikoak izan behar dute, fluxu antagonisten portu eta ibaietan kokatu behar dute, topaketa, gizarte-berrikuntza eta jakintzarako gune-sare bat eratuz, hain zuzen Mendebaldean Errenazimenduko monasterio eta uni-bertsitateek, edota Erdi Aroan Islamaren medersa eta karabanen jauregiek betetzen zuten eginkizun berberaz.

Eredu modernoaren artetik, berehala datorkit gogora Rudolf Schindler-en etxea, Los Angelesekoa, 1921ekoa, modernitatearen maisulanetako bat baita. Kooperatiba etxe bat, auto-eraikia, egoitza-espazioak eta laneko espazioak bereizten ez zirena eta, nahiz zorrozki begiraturik bizileku nomada bat izan ez, eta mugako bizimoduan bete-betean inspiratuta egoteaz gain, etorkinen bizileku izan zena, hala Schindler-tarrena nola beste askorena: etxe simple eta arin hartan bizi izatea, aire libreria zabaldua baitzen, zuhaitzez inguratutako estalkiaren gainean kokatutako olanazko geletan lo egiten zutela, etengabe kanpaldian bizi izatea bezala zen.

Pauline Schindler-ek, arkitektoaren bikotekidea bera, eta ustez etxearen ideologoa izan zena, etorkizuneko proiektuari buruz honakoa idatzi zuen: “Nire ametsetako bat... egunen batean basetxe txiki baten poza edukitzea da, baso eta mendi ertzean eta hiri zatatsuren batetik hurbil; eta zabalik egongo da, pertsona batzuen bihotza dagoen moduan, era eta mota guztietako adiskideentzat. Topaleku bat izango da, eta bertan bilduko eta etengabe egongo dira, elkarrekin, langileak eta aberatsak, irakasleak eta analfabetoak, eskuzabalak eta doilorrak”. Europa ilunetik heldu berrian, eta mende hasierako Amerika haren “promesak” liluraturik zuela, behar bada gehiegieriaz aritu zen Pauline Schindler aberatsen kontuan, baina ametsak ez du horregatik bere xarma batere galtzen<sup>9</sup>.

#### Lan immateriala, lan bizia

... orain ezinezkoa da lana neurtzea, ez konbentzios ez kalkuluz [...]. Jendetzaren lan biziaren fenomenologia berriak oinarritzko sorkuntza-jardueratzat erakusten digu lana, eta honek, lankidetzaren bidez, ezarritako oztupo guztiak gainditzen ditu, eta mundua birsortzen, etengabeki. [...] Ez dago fitxatzeko erlojurik produkzio biopolitikoan: proletarioak [berriak] bere osoan produzitzen du, toki guztietan eta ordu guztietan. [...] Postmodernitateko eta produkzio biopolitikoak iragaitzan, lan-indarra gero eta kolektiboago eta sozialago bihurtu da<sup>10</sup>.

Lan-modu berriak, egile batzuen iritziz, giltza nagusia dira jendetzari buruzko hipotesi politiko berrian. Lan immaterialak toki nagusia hartu du, industriako langilea ordezkatzuz, jendetza iraultzarako —letra txirik idatzia bada ere— boterea duen subjektu politikotzat eratzeke, zapatistek proposatzen duten moduan hain justu ere. Proletario berriaren, hots, zenbaitek prekaritatu deitzen duenaren figura nagusia langile immateriala da. Aberastasunaren eraikuntza dagoeneko ezin da lanean edo bulegoan eginiko lan-orduetara mugatu zeren eta, gaur sekula baino gehiago gainera, produkzioa gizarte-kooperazioaren eta lan immaterialaren —lan kognitibo, afektuzko eta harremanezkoaren— bilbe-multzoaren emaitza baita; izan ere, lan immateriala gure bizitzetan zehar hedatzen da, eta dagoeneko ezin da soldatapeko harremanetako lan simplearen denbora-unitateak erabiliz neurtu, azken 40 urteotako historiak erakutsi duen moduan: kontrakultura,

Lan immaterialak toki nagusia hartu du, industriako langilea ordezkatzuz, jendetza iraultzarako —letra txikiz idatzia bada ere— boterea duen subjektu politikotzat eratzeko, zapatistek proposatzen duten moduan hain justu ere.

sare telematikoak, gizarte-azterlanen berrikuntza, emakumeen bizimoduko aukeren hedapena, lan militantea, boluntario lana eta beste pila bat [...]. Autonomia nahia, irrika zibila eta gai komunekiko gustua izan dira mundua, ezagutzen dugun moduan, behin betiko eta onerako eraldatu dutenak<sup>11</sup>.

Espazio biopolitikoan, oso zaila da produkzio lana, erreproduziko lana eta lan antzua bereizten eta, ondorioz, prekario italiarrek proposatzen duten moduan, lantokia dagoeneko ez da lantegia edo bulegoa, baizik eta hiri osoa.

Mundua eraldatzen eta produzitzen duen jendetzaren lan askea, beraz, elementu nagusia izango da jendetzaren etxean. Soldatapeko laneko tokien eta familia nuklearraren intimitate alienatuaren arteko bereizketa debordarraren hiriaren ordezt<sup>12</sup>, jendetza konektatuaren etxeak posible egin behar ditu beste harreman batzuk, lan biziaren —bizitza desiratzaila bera baita lan hori—, gizarte-kooperazioaren —berezko egoera du eta— eta beregaintasun pertsonal eta familiarren artean.

Esaten badugu lana sare horizontaletan egiten dela, makinekiko poligamia ontologiko berrien bidez, Sarera konektatuta, modu modularrean, eta lehia banatuan oinarriturik, ez al gara ari, akaso, habitatze berrien hainbat alderdiri buruz hitz egiten? Lan biziak mundua etengabe birsortzen baldin badu, horixe behintzat Negri eta Hardtek diotena, ez al du, bada, lehen-lehenik etxea birsortuko?

Orduan, agian, jendetza konektatuaren etxea makina gisa pentsatu beharko litzateke, hau da, lan libre eta bizitza, birsortze etengabea, gizarte-kooperazioa —eta, beraz, konektibitate— eta produkzio immateriala —produkzio kognitibo, afektuzko eta harremanezkoa— identifikatzeko makina gisa. Nodo-makina bat, badirudi horixe dela bidea, fluxu horiek guztiek zeharka dezaten utziko duena, munduarekin konektatua, etengabe probatutako fluxuen eta berak sortzen dituen beste batzuen emisio-gunea izanik aldi berean. Uhin oneko etxea, bibrazio onekoa, mexikarrek esango luketen moduan. Jariatzea, habitatzea, pentsatzea. Habitatuak izateko fluxuak.

### Inteligentzia kolektiboa

Inteligentzia kolektiboaren auto-antolaketarako eskubidea<sup>13</sup>. Jendetzak produzitzeko erabiltzen ditu makinak, baina horrez ostean, jendetza bera ere makina-jendetza bihurtzen da, produkzio-baliabideak gero eta gehiago daudelako jendetzaren gogo eta gorputzetan txertatuta. Testuinguru honetan, jakintzaren, informazioaren, komunikazioaren eta afektuen gainean sarbide libre eta kontrola edukitzea esan nahi du birjabetzeak —aipatuok baitira produkzio biopolitikoaren baliabide primarioetako batzuk—<sup>14</sup>.

Informazioaren gizartean informazioaren eta komunikazioaren teknologiei loturik dago boterea, eta baita gizartean eraldaketa bera ere, hain zuzen jakintzaren zentraltasunaren eraginez; izan ere, aipatu teknologiek dira gizarte horrek produkziarako dituen baliabideak. Jendetzaren lan biziak, mundu berriak sortzeko eta gizarte-kooperazioan oinarritzen den inteligentzia kolektiboa eraikitzeko desira bridatu ezina duela ezaugarri, gaintu egiten ditu kapitalismo inperialak dituen kontrol eta atzemate proiektu guztiak —migrazio mugimendu geldiezinek gaintzen dituzten bezalaxe—. Software librearen aurkako borroka kapitalistaren eta jabetza intelektualaren gaineko legegia ezartzeko ahaleginen kasu elkarririk lotuek ezagun lagatzen dute jendetzak mundu garaikideko eraldaketa-prozesuen aitzindari gisa duen indar itzela. Hain zuzen ere, megahiri globaletako hiri-lantegiek eta ekonomiek, egiaz eta nagusiki hiri auto-eraike erraldoi eta merkatu informal bihurtu direlarik, ezagun lagatzen duten bezalaxe.

Pentsatzen dugun etxea jendetzaren gerra-makina bat izan dadin, inteligentzia kolektiboa sortzera emandako lantegi bat izan beharko du etxeak, eta mundu konektatuan honek zera esan nahi du: laborategi eta produkzio-gune telematiko, harremanezko eta afektuzko bat, berrikuntza antagonistarako baliabide bat, kode irekiko arkitektura bat, bazar bat, ez ordea katedral bat, GNUmikro-teknopoli bat.

Espazioak, azpiegiturak eta lanabesak kooperazioaren eta inteligentzia kolektiboaren produkzioaren zerbitzupuan. Etxeok baitan hartu

beharko baitituzte —edo, beharbada, izan beharko dute— software librearen garapena, datu-base interaktibo eta erlaziozkoak, *wiki* existentzialak, *streaming* zerbitzari multimedialak, birtualaren eta errearen, lokalaren eta globalaren arteko interfaze etengabeak; sarean sarearen *backbone*<sup>15</sup> batetik edo banda zabaleko norabide biko satellite-konexio batetik hurbil betiere; eta maila lokalean hiri osoari, are urrunago helduz ere, estaldura ematen dioten haririk gabeko sare lokalekin konektatuta egon.

### Berrikuntzarako baliabideak

1976an, At&T erabaki zuen bere Unix sistema eragilea erabiltzeagatik kobratzen hasia; ordu-ra arte, software guztia bezalaxe, librea zen. Richard Stallman-ek, proiektuko programatzaile gazte bat bera, une hartan erabaki zuen Unix bezain indartsua baina, sistemaren izaeragatik beragatik, beti-beti libre izango zen sistema eragile bat garatzea. GNU deitu zion, *you know it's not Unix*-en rap itxurako klabe moduko bat. Hauxe izan zen software librearen mugimenduaren birfundatzea, ordura arte ere programazioaren berezko modua izana zen eta<sup>16</sup>.

Guk, beste izen batzuen artean, GNUmikro-teknopoli izena proposatzen dugu jendetza konektatuaren etxearentzat, zehatzago esanda, jendetza konektatuaren etxe-laborategien sarearentzat.

Izen hau argitzeko, teknopolien genealogia azaldu beharko dugu, Espainiako estatuari dagokionez behintzat. Teknopoliak, Sevillako Cartuja 93 hura bezala —han zertu genuen jendetza konektatuaren hozitze ekitaldietako bat— Manuel Castells eta beste ikerlari batzuek 80ko urteetan eta 90eko lehenbizikoetan *innovation milieus* edo berrikuntza-baliabideei buruz garatu zituzten ikerkuntzen emaitza dira. Bere lanetan, Castells saiatzeko zen Kaliforniako Silicon Valley edo Bostongo Route 128 bezalako tokietan izandako teknologia eta aberastasuna sortzeko prozesu paregabeen giltzak argitara ateratzen: berrikuntza teknologikoa ez da gerta-kizun bakartu bat, jakintzaren egoera zehatz bat islatzen du, erakunde eta industri ingurune berezi bat, arazo tekniko bat definitu eta konpontzeko gaitasunen halako erabilgarritasun bat, aplikazio hori errentagarri bihurtuko duen mentalitate ekonomiko bat, eta produktoreez eta bere esperientziak modu metagarririen komunika ditzaketen erabiltzaileez osatutako sare bat [...]”<sup>17</sup>. Informazioaren iraultzako berrikuntza-baliabideei buruzko analisi zehatza-goetan Castellsek, gainera, hainbat faktore osagarri identifikatzen ditu, hala nola sarean, bereziki informalen, garrantzia, klusterkako antolaketa espaziala, eta unibertsitate eta garapen eta produkzio zentroen arteko konexioa. Analisi horien arabera, Espainiako estatuan teknopolien ereduak sustatu da; ez da, ordea, bere erreferentzia globalen isla ahul bat baizik.

Eta hemen agertzen da GNU-teknopolia eta, seguruenik, Castellsen analisiaren akats kritikoa; honekiko kontrasteaz, halaber, jendetza zaleen analisiaren egokitasuna. Aberastasunaren produkzioan lagundu dezake halako instituzio edo enpresa jarrera batek, baina lan bizirik eta gizarte-kooperazio auto-antolatutik sortzen da, ezinbestez, aberastasun hori. Hewlett Packard bi ingeniari sortu zuten garaje batean. Apple bi hackerrek sortu zuten, beste batean. Interneteko zerbitzarietatik ehuneko 60 inguruk software librea erabiltzen du, kalitate hobea edukitzeaz gain seguruagoa delako. Google, sekula izan den liburutegirik handiena, 25 urteko bi ikaslek jarri zuten abian... Internet, historia osoan zehar gizakiak eman duen produkturik handiena seguruenik, eta bizi garen mundua eraldatzeko eragile behinetako bat, gizarte-kooperazioaren eta lan bizi auto-antolatuaren emaitza da, ez erakundeena edo interes ekonomiko hutsarena...

Gure jendetza konektatuaren GNU-teknopoli etxeen sarea gaur egun irudimenean izan dezakegun berrikuntza-sarearik indartsuena dateke, teknopoli instituzionalak eraiki ahal izateko benetako oinarria, instituzional horiek, derrigorrezko gizarte zein kultur oinarririk ezean, nekez iritsiko baitute garaiok dagokien maila. Beste kontu bat izan daiteke, dena den, Inperioak eta estatuek erraz bereganatu ahal izango ote duten jendetza konektatuko hacker, artista eta ekintzaileen agentziatze berriek produzitutako berrikuntza teknologiko eta soziala; edota, aitzitik, aipatuon produkzio, inteligentzia kolektibo, lan bizi eta makina desiratzaleek lortuko ote duten jendetza bera izatea xede. Baina kontuok, oraingoz behintzat, fikzio-zientzia hutsa dira.

Eta, gainera, jendetza digitalean kide ditugun Florian Schneider eta Geert Lovink-ek dioten moduan: “Alternatiba ez da bakarra. Sare-arkitektura asko dago asmatzeko eta probatzeko”<sup>18</sup>. ◀

OSFAVELADOS, a.k.a. José Pérez de Lama arkitektoa, bideografoa eta ekintzailea da. Eskolak eman ditu Sevillako Arkitektura Eskolan. *Pasajes de Arquitectura y Crítica* aldizkariaren ohiko kolaboratzailea da. Gaur egun arkitektura eta hirigintza dauden lurralde berriak ikertzen ditu, hala nola informazioaren eta komunikazioen teknologiek eta gizarte-sareak. Ekintzaile, hacker eta arkitektoekin lanean aritzen da, eta baita artistekin ere. Sergio Moreno, a.k.a. chaser, Pablo de Soto eta beste hacker eta arkitekto batzuekin batera, arkitekto eta hackerrez osatutako geometria aldakorreko *posse* bat den *hackitectura.net*-en kide da.

### OHARRAK ETA ERREFERENTZIAK

1 2003ko iraileko lehen astean *hackitectura.net*-ek, beste kolektibo batzuekiko elkarlanean, *La multitud conectada* ekintza-laborategia antolatu zuen, UNIA arteypensamien-tokik sustatu eta BNVko Miguel Benlloch-ek koordinatutako 03 bileraren zati gisa. Jendetza konektatua gizarte-sareak, sare telematikoko eta arkitektura-espazioak agentziatzeko laborategi bat izan zen, lokalaren eta globalaren, birtualaren eta errearen arteko espazio publiko bat azken batean. Honi buruz gehiago ikusi ahal izateko: <http://mcs.hackitectura.net/inicio.html>

2 SOJA, E. *Postmetropolis. Critical Studies of Cities and Regions*. London : Blackwell Publishers, 2000, 324. or.

3 Artikulu hau prestatzeko testu bat ikusteko, bertan luze eta zabal garatzen baita kontu hau beste batzuekin batera: [http://mcs.hackitectura.net/osfavelados/txts/casa\\_mc\\_gnu\\_tecnopolis/casa\\_mc.html](http://mcs.hackitectura.net/osfavelados/txts/casa_mc_gnu_tecnopolis/casa_mc.html)

4 HARDT, M.; NEGRI, A. *Empire*. Cambridge : Harvard University Press, 2000, gaztelaraz: *Imperio*. Barcelona : Paidós, 2002 ; RODRÍGUEZ, E. *El gobierno imposible. Trabajo y fronteras en las metrópolis de la abundancia*. Madrid : Traficantes de Sueños. Mapas, 2003.

5 Ibidem, 397. or.

6 Ibidem, 398. or.

7 BRAND, S. *How Buildings Learn*. New York : Penguin Books, 1996. Honi dagokionez, eta baita berrikuntza-espazioei dagokionez ere, merzei du egileak xehetasun handiz azaltzen duen MITko Building 20ko adibidea aztertzea.

8 PÉREZ DE LAMA, J. *Biografía del patio mediterráneo* (testu argitaragabea). Sevilla Hiriko Ikerkuntza Saria, 1995.

9 SMITH, K. R.M. *Schindler House 1921-22*. West Hollywood : Friends of the Schindler House, 1987.

10 HARDT, M.; NEGRI, A. Op. cit., 402-403. orr.

11 SOJA, E. Op. cit., 186-187. orr.

12 DEBORD, G. “La ordenación del territorio”, *La Sociedad del Espectáculo*. Valencia : Pre-Textos, 1999.

13 SOJA, E. Op. cit., 185. or.

14 HARDT, M.; NEGRI, A. Op. cit., 406-407. orr.

15 Backbone —‘bizkarrezurra’—, sareen sarearen adar nagusi bat da. Backboneek hiri garapenean duten garrantziari eta sareko informazioaren gizarteko eraikin berriei buruz: VARNELIS, K. *The City Beyond Maps : from Bonaventure to One Wilshire, 2003*; gaztelaniaz aurkitzeko: *Pasajes de Arquitectura y Crítica*, 49. zk.koa, iraila, Madrid.

16 Honen inguruan kontsulta egiteko, esate baterako: RHEINGOLD, H. *Smart Mobs. The Next Social Revolution*. Cambridge : Perseus Books, 2002, 47-56. orr.

17 CASTELLS, M. *La Era de la Información. Vol. 1. La sociedad real*. Madrid : Alianza Editorial, 1999, 466-469. orr.

18 LOVINK, G. eta SCHNEIDER, F. *Reverse Engineering Freedom*, 2003, <http://www.nettime.org>